

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Gobernuak 6,2 milioi eurotan areagotu du finantzarioa ez den gastu-muga 2019rako, 3.241,7 milioitara iritsi arte

Diru-sarreraren aurreikuspenen hobekuntza batean oinarritzen da neurria

Asteazkena, 2018.eko azaroak 28

Nafarroako Gobernuak gaurko bilkuran onartu du 2019ko aurrekonturako gastu-muga ez finantzarioa 6,2 milioi eurotan handiagotzeko akordioa. Hori onartuta, 3.241.704.582 eurotan finkatzen da bukaerako zenbatekoa.

Foru-gobernuak iragan urriaren 17an onartu zuen hasierako gastu-muga. Hala ere, Zerga Ogasunaren txosten baten arabera, hobekuntza bat eman da 2019rako diru-sarreraren aurreikuspenetan sozietate-zerga dela eta, jarduera ekonomikoaren hobekuntzaren, zerga-aldaketen inpaktuaren eta beste ezohiko kontu batzuen ondorioz. Hortaz, muga berria onartzeko bidea eman da.

Honako banakapenetik lortzen da, zehazki, ezarritako zenbatekoa. Diru-sarrera finantzarioak 3.970.203.725 eurotan zenbatesten dira. Horiei gehitu behar zaizkie baimendutako gehieneko defizitaren 21.576.303 euroak eta Foru Ogasunak nazioko kontularitzako doikuntzetatik lortuko dituen 24.192.110 euroak. Aitzitik, hasierako zenbatekotik 229.292.786 euro kendu behar dira tokiko ogasunei ordaintzeko eta 544.974.770 euro Estatuaren diru-ekarpenengatik. Eragiketa horien ondorioz, 3.241.704.582 eurotakoa da bukaerako zenbatekoa.

Zuzenketak artikuluei

Akordio berean, Nafarroako Gobernua ados agertu da Nafarroako 2019rako Aurrekontu Proiektuaren artikuluei zuzentzeko 47 tramite onartzearekin. Geroa Bai, EHBildu, Podemos-Ahal Dugu-Orain Bai eta APF IE talde parlamentarioek aurkeztu dituzte zuzenketa horiek.

Aurrekontu Proiektuan aurreikusten ez ziren diru-sarreretatik datorren gastuaren handiagotzearekin finantzatzen diren proposamenak direlako justifikatzen da onartze hori.

Gobernuak, bere aldetik, bere desadostasuna erakutsi du beste 24 zuzenketa tramitera onartzearen aurrean, kasu honetan PSN, UPN, Geroa Bai, EHBildu, Podemos-Ahal Dugu-Orain Bai eta APF IE eta PP talde parlamentarioek aurkeztuak. Proposamen horiek gastuaren hazkundera dakartelako erakutsi da desadostasuna, bai handitu ezin daitezkeen partidak handitzeko aukera ezartzen dutelako, edo bai, handi daitezkeenak izanik, ez dutelako beste partida bateko murriztea moldatzen.